

Ordizian, **2017ko azaroaren 30a** UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesús Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	PSEE-PSOE

IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta andrea

KONTUHARTZAILEA:

Mikel Zubizarreta Elicegui jn.

BERTARATUAK:

BESTE RTARATZE ETA IRTEERAK

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

1. 2017ko urriaren 26ako udalbatzarrak egindako batzarraren zirriborroa onartzea.
2. Urriko Alkatetzako dekretuen berri ematea.
3. Urrian eta azaroan kontratazioari buruz kontu-hartzaileak egindako ingurak.
4. Azaroaren 25eko Adierazpen Instituzionala.
5. "Garbigunea" HIEko Arau Subsidiarioen behin-behineko aldaketa onartzea.
6. Udala eta ADIFen arteko hitzarmena onartzea tren geltokiko irisgarritasuna eta hiriko pasagunea burutzeko lanak burutzeko.
7. Ordizia-Goierriko Zirkuluaren proposamena Gipuzkoan aldiriko trenen zenbait zerbitzu kendu izanari buruzkoa.
8. Toponimoaren inguruko Plenorako mozioa.
9. Euskararen eguneko adierazpena.
10. Udalaren hizkuntza irizpideen betetze-mailaren inguruan Plenorako mozioa
11. Azoka eta jaialdi kudeatzaile lanposturako DBO ordainketa
12. Galde-erreguak

PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00etan

AMAIERA: 20:25etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2017ko urriaren 26ako ohiko Osoko Batzarrako akta onartzea.

Proposamena

2017ko urriaren 26ean ohiko deialdian egindako bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak:13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du aho batez.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- Urriko Alkatetzako dekretuen berri ematea

Eztabaida:

Alkate jaunak esan du aurreko osoko bilkuran Sukia andreak dekretu zerrendako dekretu bati buruzko informazioa eskatu zuela eta Alkate jaunak ezin izan ziola erantzun une horretan bertan. Informazioa emango ziola esan zion.

Jakinarazi dio dekretu hori K6 Gestión Cultural-i itzultitako bermeari buruzko dekretua dela.

Dubreuil jaunak 17/0839 zenbakidun dekretuari buruz galdetu du, erroldako baja bati buruzkoa.

Maiza andreak 17/0829 zenbakidun dekretuari buruz galdetu du, Marino Lejarreta Klasikari buruzkoa.

Alkate jaunak eskatutako informazioa eman dio.

Osoko Bilkurak dekretu zerrendaren berri izan du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

3.-Urriaren eta azaroaren kontratazioari buruz kontu-hartzaileak egindako ingurak.

Proposamena

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (8/2017):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileari, honako kontratu hauek epe kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik:

NOMBRE DE LA PERSONA FISICA;	OBJETO DEL CONTRATO	CONTRATO	PLAZO DE EJECUCION VENCIMIENTO	PRORROGAS	PRECIO DE CONTRATO	GASTADO
						2016
GESMUNPAL	Recaudación Ejecutiva	3.11.2003	3.11.2007	Decreto adjudicación de fecha 31/10/2007 Sin contrato y sin plazo	VARIABLE	30.943,58
JUAN M. GARMENDIA AMUNDARAIN	Servicio de conserje de la Casa cultura	15/04/1986	Indefinido	Prorroga anual	Importe 2016: 2.948,84 euros/mensual + IVA	42.817,20
LANDARRI, S.L.	Servicio Cementerio	10/03/2005	10 años 10./03/2015	Decreto prorrogación de contrato hasta nueva adjudicación Vto. 12.03.2016	Precio máximo 18.000 euros. + IVA	21.937,30
ALOTZA GUARDERIA	Gestión Serv. Municipal	01/09/2009	Máximo 6 años. 01/09/2015		Ver contrato	388.104,00
Asociación de Padres	Escuela Infantil				Tarifas + subv. + contraprestación y untamiento de 33.500	
GOXARA, S.L.	Gestión Centro de Día	10/11/2009	Máximo 6 años adicionales al plazo de vigencia inicial 10/11/2016		Según tarifas	271.916,44
EULEN SOCIO SANITARIOS	Servicio de Ayuda Domiciliaria	24.12.2010	Máximo 5 años 24/12/2015	Decreto 1169 de 30/11/2015 prorrogado hasta nueva adjudicación del contrato	Según tarifas	140.409,78
LORRATZ ELKARTEA	Servicio público de intervención socio-educativa en medio abierto con jóvenes y menores en situación de riesgo	27/04/2012	Máximo 4 años 27/04/2016	Decreto de prorrogación hasta nueva adjudicación, máximo un año	Precio contrato: 60.000 euros IVA incluido.	63.806,72
Arantxa Zabaleta Imaz					Precio 2016: 65.529 euros IVA incluido	
ERRO Koop. ELKARTEA Leire Arandía	Gestión del Centro D'elikatuz	24/07/2012	Máximo 4 años 24/07/2016		Precio contrato: 90.000 euros IVA incluido	102.755,36
INDOK	Gestión MUNIGEX	Sin contrato	Anual		Precio 2016: 12.196,80 euros IVA incluido	11.243,96
LAIA S.COOP.	Agenda 21	01/04/2013	01/04/2015	Sin contrato	Precio contrato: 17.061 euros IVA incluido	24.407,28
EULEN	Limpieza edificios municipales y mobiliario urbano.	Contratación provisional 10/10/2013	Indefinido (hasta nueva contratación)	----	18,07 euro / hora + IVA	163.343,53
AINARA ORMAET XEA HARTO	Servicio de Inmigración	01/01/2016	31/12/2016		21.773,95 euros IVA incluido	21.966,02
TOTAL						1.283.651,17

a) Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.

"23. artikulua. Kontratuen iraupen-epaia."

1. Sektore publikoko kontratuen **iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldi-aldi prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai**, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzuketak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa,** eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

"26. artikulua. Kontratuaren gutxienezko edukia:

1. *Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuak aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:*

k) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haien eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontuhartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontuhartzea.**

c) **Ordainketaren kontuhartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontuhartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoaren erabilpenerako amankomunatuak erantsiko zaie.

"70. artikulua. Ingerak."

1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontuhartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitura duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:

ERREPARO FAKTURAK		URRIA
--------------------------	--	--------------

HORNITZAILEA	FAKTURA ZENBAKIA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2017/10	3.660,98

ALOTZA HAURTZAINDEGIA	11	38.000,00
LORRATZ ELKARTEA	275	5.460,75
INDOK	1060	1.170,68
LAIA, S.COOP.	17/31	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	011U.17	7.640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	81	1.814,49
GESMUNPAL, S.A.	2017/285	3.490,83
GESMUNPAL, S.A.	2017/08	506,99
GESMUNPAL, S.A.	2017/286	1.020,89
GESMUNPAL, S.A.	2017/09	205,06
GESMUNPAL, S.A.	2017/330	1.950,37
GESMUNPAL, S.A.	2017/10	206,67
EULEN, S.A.	3114841	16.246,27
GOXARA, S.L.	EZO09/17	23.493,45
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	55	141,57
ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.	63	141,57
LANDARRI	1700489	320,87
LANDARRI	1700526	80,08
LANDARRI	1700536	125,01
LANDARRI	1700546	320,87
GUZTIRA		107.490,48

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.

b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordaintzen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

971. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

- Kontu-harzaileak 2017ko urriaren 31 n egindako 8/2017 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.
- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.
- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragotzen du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoen ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebeharrak jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai

askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.

- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariekin pleguak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.
 - Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.
 - Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.
- Horregatik guztiagatik:

HONAKO HAU ERABAKI PUT:

* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak

HORNITZAILEA	FAKTURA ZENBAKIA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2017/10	3.660,98
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	11	38.000,00
LORRATZ ELKARTEA	275	5.460,75
INDOK	1060	1.170,68
LAIA, S.COOP.	17/31	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	011U.17 7	7.640,25
AINARA ORMAETXEA HARTO	81	1.814,49
GESMUNPAL, S.A.	2017/285	3.490,83
GESMUNPAL, S.A.	2017/08	506,99
GESMUNPAL, S.A.	2017/286	1.020,89
GESMUNPAL, S.A.	2017/09	205,06
GESMUNPAL, S.A.	2017/330	1.950,37
GESMUNPAL, S.A.	2017/10	206,67
EULEN, S.A.	3114841	16.246,27
GOXARA, S.L.	EZO09/17	23.493,45
ORDIZIA GARBIKETAK S.L	55	141,57
ORDIZIA GARBIKETAK, S.L	63	141,57
LANDARRI	1700489	320,87
LANDARRI	1700526	80,08
		GUZTIRA 107.490,00

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (9/2017):

AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileari,honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik:

NOMBRE DE LA PERSONA FISICA;	OBJETO DEL CONTRATO	CONTRATO	PLAZO DE EJECUCION VENCIMIENTO	PRORROGAS	PRECIO DE CONTRATO	GASTADO
						2016
GESMUNPAL	Recaudación Ejecutiva	3.11.2003	3.11.2007	Decreto adjudicación de fecha 31/10/2007 Sin contrato y sin plazo	VARIABLE	30.943,58
JUAN M. GARMENDIA AMUNDARAIN	Servicio de conserje de la Casa cultura	15/04/1986	Indefinido	Prorroga anual	Importe 2016: 2.948,84 euros/mensual + IVA	42.817,20
LANDARRI, S.L.	Servicio Cementerio	10/03/2005	10 años 10./03/2015	Decreto prorrogación de contrato hasta nueva adjudicación Vto. 12.03.2016	Precio máximo 18.000 euros. + IVA	21.937,30
ALOTZA GUARDERIA	Gestión Serv. Municipal	01/09/2009	Máximo 6 años.		Ver contrato Tarifas + subv. + contraprestación y untamiento de 33.500	388.104,00
Asociación de Padres	Escuela Infantil		01/09/2015			
GOXARA, S.L.	Gestión Centro de Día	10/11/2009	Máximo 6 años adicionales al plazo de vigencia inicial 10/11/2016		Según tarifas	271.916,44
EULEN SOCIOSANITARIOS	Servicio de Ayuda Domiciliaria	24.12.2010	Máximo 5 años 24/12/2015	Decreto 1169 de 30/11/2015 prorrogado hasta nueva adjudicación del contrato	Según tarifas	140.409,78
LORRATZ ELKARTEA	Servicio público de intervención socio-educativa en medio abierto con jóvenes y menores en situación de riesgo	27/04/2012	Máximo 4 años	Decreto de prorrogación hasta nueva adjudicación, máximo un año	Precio contrato: 60.000 euros IVA incluido. Precio 2016: 65.529 euros IVA incluido	63.806,72
Arantxa Zabaleta Imaz			27/04/2016			
ERRO Koop. ELKARTEA Leire Arandía	Gestión del Centro D'elikatuz	24/07/2012	Máximo 4 años 24/07/2016		Precio contrato: 90.000 euros IVA incluido	102.755,36
INDOK	Gestión MUNIGEX	Sin contrato	Anual		Precio 2016: 12.196,80 euros IVA incluido	11.243,96
LAIA S.COOP.	Agenda 21	01/04/2013	01/04/2015	Sin contrato	Precio contrato: 17.061 euros IVA incluido	24.407,28
EULEN	Limpieza edificios municipales y mobiliario urbano.	Contratación provisional 10/10/2013	Indefinido (hasta nueva contratación)	----	18,07 euro / hora + IVA	163.343,53
AINARA ORMAETXEA HARTO	Servicio de Inmigración	01/01/2016	31/12/2016		21.773,95 euros IVA incluido	21.966,02
TOTAL						1.283.651,17

a) Aplikagarria zaizkion arauak:

a.1) 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena.

"23. artikulua. Kontratuen iraupen-epaia."

2. Sektore publikoko kontratuen **iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldi-aldi prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai**, kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organoren diren neurrian, kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa**, eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

"26. artikulua. Kontratuaren gutxienezko edukia:

1. *Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:*

k) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.

a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haien eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontuhartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontuhartzea.**

c) **Ordainketaren kontuhartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontuhartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoaren erabilpenerako amankomunatuak erantsiko zaie.

"70. artikulua. Ingerak."

1.- Kontuhartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontuhartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiari, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitura duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregulartasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:

FACTURAS REPARO

AZAROA

HORNITZAILEA	FAKTURA ZENBAKIA	ZENBATEKOA
---------------------	-----------------------------	-------------------

J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2017/11	3.660,98
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	12	38.000,00
LORRATZ ELKARTEA	310	5.460,75
INDOK	1065	962,56
LAIA, S.COOP.	17/34	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	012U.17	7.640,25
ERRO KOOP. ELKARTEA	013U.17	4.550,00
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3478687	7.301,21
GOXARA, S.L.	EZO10/17	25.431,62
	GUZTIZKOA	94.500,20

ONDORIOAK:

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.

b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordaintzen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

2017/1018. DEKRETUA

HONAKO HAU IKUSITA:

- Kontu-hartzaileak 2017ko azaroaren 27an egindako 9/2017 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.
- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.
- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebeharrak jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.
- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariek pleguak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.
- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.
- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.

Horregatik guztiagatik:

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

HORNITZAILEA	FAKTURA ZENBAKIA	ZENBATEKOA
J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN	2017/11	3.660,98
ALOTZA HAURTZAINDEGIA	12	38.000,00
LORRATZ ELKARTEA	310	5.460,75
INDOK	1065	962,56
LAIA, S.COOP.	17/34	1.492,83
ERRO KOOP. ELKARTEA	012U.17	7.640,25
ERRO KOOP. ELKARTEA	013U.17	4.550,00
EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.	3478687	7.301,21
GOXARA, S.L.	EZO10/17	25.431,62
	GUZTIZKOA	94.500,20

* Dekretu hau doakionari jakinaraztea.

Eztabaida:

Dubreuil jaunak adierazi du kontratuen zerrendan GOXARAREN kontratua azaltzen dela, Eguneko Zentroko zerbitzua ematen duenarena alegia, eta ez luke bertan egon behar dagoeneko egunean baitago.

Kontu-hartzaileak erantzun dio esanez kontratu honek azaroan azaldu behar duela eta hemendik aurrera kontuan izanik eguneratuta dagoela ez dela berriro ingeretan azalduko.

Sukia andreak Kontu-hartzaileari emandako informazioa eskertu dio.

Osoko bilkura jakinaren gainean dago.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.-Azaroaren 25eko Adierazpen Instituzionala

Proposamena

Azaroaren 25a dela eta, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, berriz azpimarratzen dugu indarkeria mota honen izaera estrukturala eta gure konpromisoa agertzen dugu emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den gizarte baten alde. Era berean, nazioarteko zuzenbide-esparruarekin bat, berresten dugu badagoela loturarik genero-arrazoiek eragindako bazterkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean. Emakumeen aurkako indarkeriak eragindako biktimei eta hartatik bizirik irtendakoei laguntza-zerbitzua bermatzea ez ezik, beharrezkoa ere bada esku-hartzearen plano guztietan jarduketak planteatzea: **Prebentzioa, Detekzioa, Arreta, Babesa, Koordinazioa, Justizia, eta Erreparazioa ere bai.**

Emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den berdintasunezko gizarte bat eraikitzeke dugun konpromisoa oinarritzat hartuz, dagokigun erronka da **erreparazio-eskubidea** emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzunean sartzeko. Horretarako, eskura izan behar ditugu indarkeriaren eta berorren adierazpide guztien inpaktuak ikusarazten lagunduko duten baliabideak, deslegitimazio soziala xede harturik. Beharrezkoa da **ahotsa eta protagonismoa ematea**, bai indarkeria matxistaren biktimei bai berorien elkargune diren elkarteei, erreparazio-bideak proposatzeko duten zilegitasuna aitortze aldera. Erreparazio honen helburua indarkeriaren biktimak eta hartatik bizirik irtendakoak guztiz osatzea izan behar da. Hortaz, barne hartu behar du inplikaturiko zerbitzu eta sistema guztiak hobetzea, nola-eta horiek guztiak **sistematikoki aztertuz.**

Beraz, emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egun honetan, honakoa agertzen dugu:

- Gure konpromisoa **agenda politikoan** indarkeriak eragindako emakume biktimekiko **erreparazio-eskubidearen** aitortza eta horri buruzko hausnarketa sartzeko, guztiz osatu daitezen eta indarkeriarik gabeko bizitza-eskubidea gauzatu ahal dezaten.
- Gure konpromisoa **udaletan plan eta neurri estrukturalak hedatzen eta hobetzen jarraitzeko** edo, hala badagokio, **abian jartzeko**, indarkeria matxistari aurre egitea xede, **emakumeen kolektiboekin eta kolektibo feministekin** batera, bai halaber **gizarte zibilarekin eta herritarrekin** oro har.
- Gure konpromisoa **gizartean aldaketa estrukturala bultzatzeko**, hartara herri-erakundeak, komunikabideak, lan-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-esparruko eragileak zein gizarte osoarenak inplikatu daitezen.
- Eta gure ardura, indar politiko guztien eta erakundeen adostasunaren bitartez, **beharrezkoak diren baliabideak** eskura izan daitezen, xedea izanik emakumeen aurkako indarkeria gure gizartetik desagerrarazten aurrera egitea.

Eztabaida:

Alkate jaunak erakunde adierazpena irakurri du.

Sukia andreak esan du EUDELen adierazpenarekin bat egiten duela baina “adierazpenak” zatiaren, hau da, azkeneko paragrafoaren aurretik hiru paragrafo sartzeko proposatzen du. Idazkariari proposatzen dituen paragrafoen testua pasa dio.

Dubreuil jaunak proposatu du beste paragrafoa bat txertatzea adierazpenaren azkeneko paragrafoa eta gero. Idazkariari sartu beharreko testuaren kopia eman dio.

Maiza andreak galdetu du ea EUDELen erakunde adierazpena Berdintasun Saitetik pasa den eta zein ekarpen egin duten sail honetatik.

Alkate jaunak erantzun dio esanez Berdintasun Teknikariak berak eraman duela Batzordera EUDELen adierazpen proposamena.

Intxausti andreak galdetu du ea zein egoeran dagoen mainstreaming prozesua, talde politiko desberdinek martxan jartzea adostu zutena.

Alkate jaunak erantzun dio.

Eztabaidaren ostean Idazkariak adostutako aldaketak proposamenean sartu ditu, eta horrela idatzita geratuko litzateke:

Azaroaren 25a dela eta, emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Eguna, berriz azpimarratzen dugu indarkeria mota honen izaera estrukturala eta gure konpromisoa agertzen dugu emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den gizarte baten alde. Era berean, nazioarteko zuzenbide-esparruarekin bat, berresten dugu badagoela loturarik genero-arrazoiek eragindako bazterkeriaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean. Emakumeen aurkako indarkeriak eragindako biktimei eta hartatik bizirik irtendakoei laguntza-zerbitzua bermatzea ez ezik, beharrezkoa ere bada esku-hartzearen plano guztietan jarduketak planteatzea: **Prebentzioa, Detekzioa, Arreta, Babesa, Koordinazioa, Justizia, eta Erreparazioa ere bai.**

Emakumeen aurkako indarkeriatik libre egongo den berdintasunezko gizarte bat eraikitze dugu konpromisoa oinarritzat hartuz, dagokigun erronka da **erreparazio-eskubidea** emakumeen aurkako indarkeriari emandako erantzunean sartzeko. Horretarako, eskura izan behar ditugu indarkeriaren eta berorren adierazpide guztien inpaktuak ikusarazten lagunduko duten baliabideak, deslegitimazio soziala xede harturik. Beharrezkoa da **ahotsa eta protagonismoa ematea**, bai indarkeria matxistaren biktimei bai berorien elkargune diren elkarteei, erreparazio-bideak proposatzeko duten zilegitasuna aitortze aldera. Erreparazio honen helburua indarkeriaren biktimak eta hartatik bizirik irtendakoak guztiz osatzea izan behar da. Hortaz, barne hartu behar du inplikaturiko zerbitzu eta sistema guztiak hobetzea, nola-eta horiek guztiak **sistematikoki aztertuz.**

Beraz, emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Egun honetan, honakoa agertzen dugu:

- Gure konpromisoa **agenda politikoan** indarkeriak eragindako emakume biktimekiko **erreparazio-eskubidearen** aitortza eta horri buruzko hausnarketa sartzeko, guztiz osatu daitezen eta indarkeriarik gabeko bizitza-eskubidea gauzatu ahal dezaten.
- Gure konpromisoa **udaletan plan eta neurri estrukturalak hedatzen eta hobetzen jarraitzeko** edo, hala badagokio, **abian jartzeko**, indarkeria matxistari aurre egitea xede, **emakumeen kolektiboekin eta kolektibo feministekin** batera, bai halaber **gizarte zibilarekin eta herritarrekin** oro har.
- Gure konpromisoa **gizartean aldaketa estrukturala bultzatzeko**, hartara herri-erakundeak, komunikabideak, lan-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-esparruko eragileak zein gizarte osoarenak inplikatu daitezen.

- Indarkeriari aurre egiten dioten emakume guztiei arretoa eta erreparazio integrala eskaintzea, kontuan izanik erabat beharrezkoa dela emakumeekin beraiekin lana egitea, erakundeen arteko koordinazioa eta mugimendu feministarekin eta elkarteekin koordinazioa izatea.
- Foru Aldundiari, EMKUNDERI eta Eusko jaurlaritzako gainerako erakundeei emakume eta gizonezkoen arteko berdintasun arloko aurrekontu partidak handitzea eskatzea, berdintasun zuzendaritzak indartzea, epaitegietako genero unitateak indartzea eta indarrean dagoen legedia berraztertzeke konpromisoa hartzea eskatzea.
- Neurrien aplikazioa eta bere eraginkortasuna urtero aztertzeke konpromisoa hartzea guk, eta emaitzen arabera aldatzeko egitea, eta horretarako berdintasun unitateak baliabide teknikoak eta ekonomikoak hornitzea, gaitz honen aurkako borroka borroka eraginkor bihurtzeke eta ez izateke borroka teoriko hutsa.
- Gure konpromisoa **gizartean aldaketa estrukturala bultzatzeko**, hartara herri-erakundeak, komunikabideak, lan-, kultura-, gizarte- eta ekonomia-esparruko eragileak zein gizarte osoarenak inplikatu daitezke.
- Nazioaren Gobernuari baliabideak emateke eskaera egitea eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Hitzarmenaren garapenean aplikatzeko premia adieraztea.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat eman du.



5.-“Garbigunea”HIEko Arau Subsidiarioen behin-behineko aldaketa onartzea

Proposamena

PLANGINTZA.- “Garbigune” Hirigintza Interbentzio Eremu berria sortzeke eta 27-Suhiltzaile Parkea Hirigintza Interbentzio Eremua aldatzeke Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako elementuen Aldaketa puntualerako bideratzen den espedientearen berri ematen da, Jose Mari Aseginolaza arkitektoak egindako eta Udal honek sustatutako dokumentuaren arabera.

Udalbatzan hasierako izaeraz onartua 2016ko ekainaren 30ean, jendaurreke erakusketan egon zen epe batean eta legeak ezarritako eran Udaleko iragarki-oholean argitaratuta, 2016ko urriaren 6ko 191 zenbakidun GAOn eta 2016ko urriaren 5eko egunkarian argitaratuta, eta ez da inongo alegaziorik aurkeztu.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Sailaren aldeko txostenen, Uraren Euskal Agentziaren eta ADIFen aldeko txostenen berri ematen da.

2017ko azaroaren 9an Jose Mari Aseginolaza arkitektoak behin-behineko onarpena emateko dokumentua aurkeztu zuen.

2017ko azaroaren 14ko udal arkitektoaren txostena ikusita Osoko Bilkurarako Gaien Batzordeak 2017ko azaroaren 22an egindako bileran ondorengo proposatzea erabaki du:

AKORDIO PROPOSAMENA

1.- Aldi bateko izaeraz onartzea “32-Garbigune” HIE sortzeko eta “27-Suhiltzaile Parkea” aldatzeko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako elementuen Aldaketa Puntuala, 2017ko azaroan aurkeztutako dokumentuaren arabera 2016ko ekainaren 20ko txosten teknikoan hasierako onarpenari egindako eta bertan jasotako aldaketen arabera.

2.- Espedientea EAELABera bidaltzea nahitaezkoa eta loteslea den txostena egin dezan eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Organora Ingurumen Eraginaren behin betiko txostena egin dezala eskatuz.

3.- Alkatetzari akordio hauek sustatzeko beharrezkoak diren xedapenak egiteko eskumena ematea.

Eztabaida:

Alkate jaunak Garbigune Eremua onartzeko aurrekariak eta jarraitzen ari diren prozedura azaldu ditu. 2017ko ekainean hasierako izaeraz onartu ondoren, une honetan behin-behineko izaeraz onartuko da.

Bozketa

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat eman du.



6.- Udala eta ADIFen arteko hitzarmena onartzea tren geltokiko irisgarritasuna eta hiriko pasagunea burutzeko lanak burutzeko.

Idazkariak jakinarazi du akordio honetan ADIFen hitzarmena onartzea proposatzen dela Ordiziako geltokiko irisgarritasun obrak burutu ahal izateko eta Ordiziako udalerrian oinezkoentzako behe-aldeko igarobide bat egiteko.

Horrekin batera adierazi du Hitzarmenaren testuaren 2. orrialdean akats bat dagoela, eta Hitzarmena sinatzeko alkateari eskumena ematen dion erakundea zehaztean, ez dagokio Gobernu Batzordeari, osoko bilkurari baizik.

Ondorioz, bigarren paragrafoa honela idatzita geratzen da:

*“Bestetik, **Jose Miguel Santamaria Ezeiza jn.**, Ordiziako Udaleko alkatea, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25.2 artikulua araberaren hirigintza-antolamenduaren, -kudeaketaren, -egikaritzearen eta -diziplinaren arloetan dituen eskumenak betez diharduena, eta egintza honetarako bereziki ahaldundua azaroaren 30 ean egin zen ohiko bilkuran hartutako akordioari jarraiki.”*

Zuzenketa egin da

Proposamena

ELKARTURIK

Batetik, **Juan Bravo Rivera jn.**, *Administrador de Infraestructuras Ferroviarias* (ADIF) enpresa-entitate publikoaren presidentea, abenduaren 30eko 2395/2004 Errege Dekretuak onartu zuen Entitate horretako Estatutuko 23.2, a) hizkiak ondorioetarako ematen dion eskumena betez.

Bestetik, **Jose Miguel Santamaria Ezeiza jn.**, Ordiziako Udaleko alkatea, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25.2 artikulua araberaren hirigintza-antolamenduaren, -kudeaketaren, -egikaritzearen eta -diziplinaren arloetan dituen eskumenak betez diharduena, eta egintza honetarako bereziki ahaldundua(e)an egin zen Udal Gobernu Batzordeak hartutako akordioari jarraiki.

Bi aldeek, beren karguek ematen dieten ordezkartzaren araberaren, eta bi aldeek elkarri honako hitzarmena sinatzeko behar besteko zuzenbidezko gaitasuna aitortuta, eta ondorioetarako,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE

- I. *Administrador de Infraestructuras Ferroviarias* (ADIF) enpresa-entitate publikoa Sustapen Ministeriora atxikita dagoen erakunde publikoa da eta berezko izaera juridikoa dauka, baita xede eta ondare propioa betetzeko jarduteko gaitasuna ere, eta honako hauek eraentzen dute: Trenbide Sektoreari buruzko azaroaren 17ko 39/2003 Legeak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak eta hori garatzen duten arauak, enpresaren Estatutuek eta aurrekontu-legeriak, eta aplikagarriak zaizkion beste arauak.

Bere eginkizunak gauzatzeko aldera, ADIF kudeaketa-autonomiarekin dihardu, edozein kasutan interes publikoa bermatzea, gizartearen premiak kalitate gorenekin betetzea, erabilizailen segurtasuna, eta trenbide-sistemaren eragimen globala kontuan hartuta. Horretarako, eskumen hauek dauzka, besteak beste:

- Interes orokorreko trenbide-sareko parte izan behar duten trenbide-azpiegituretarako oinarriko proiektuak eta azpiegitura horiek eraikitzeako proiektuak onartzea, betiere, entitatearen bitarteko propioak erabilia eraikitzen badira.
 - Trenbide-azpiegiturak eraikitzea, Estatuaren edo hirugarren baten baliabideekin, dagokion hitzarmena betez.
 - Bere titularitatekoak dituen trenbide-azpiegiturak administratzea; horien artean, interes orokorreko trenbide-sareko bidaiarien geltokiak.
 - Administratuko dituen trenbide-azpiegituren, horien babes-eremuen, eta azpiegitura horren gaineko tren-zirkulazioaren kontrola eta ikuskapena.
- II.** Ordiziako Udalak eskumena du hirigintza-antolamenduaren, -kudeaketaren, -egikaritzearen eta -diziplinaren arloetan, Ordiziako udalerraren barruan, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25.2 artikulua arabera, herritarren premiak eta nahiak sustatzen lagunduko duten jardura oro sustatzeko eta zerbitzu oro emateko. Ordiziako Udalak garraio-sistema sustatu eta koordinatu nahi ditu, eta trenbide-azpiegiturak udalerrian txartatu.
- III.** ADIFek nasa batetik bestera azpitik pasatzeko eta bi igogailu jartzeko irisgarritasun-proiektua landu du.
- IV.** Ordiziako Udala interesaturik dago geltokiko irisgarritasun lanak baliatu eta trenbide azpiko hiri-pasabide bat egiteko, oinezkoen trenbidea zeharkatzeko iragazkortasuna bermatze aldera.
- V.** ADIFen Bidaiarien Geltokietako Eskuliburuak jasotzen du nasen arteko pasabideak hiri-pasabideetatik bereizi behar direla, geltokia al bait hobekien ustiatzea errazte aldera, halako moldez non trenbide-azpiegitura herritik bereizi ahal izango den geltokiak hesituta, eta iruzurraren aurkako kontrolak ezarri ahal izango diren. Aldi berean, bidaiarien geltokiaren barreneko ibilbideak argituko dira.
- VI.** Pasabidea dela-eta proiektatutako zabalpenak aukera eman behar du bi joan-etorriak bereiz eta independenteki egitea: hau da, geltokirako soilik izango dena, eta herrirako pasabidea izango dena; proiektatutako pasabidea zabaldua, joan-etorriak bereizteko itxitura gehituta, eta eskailera eta igogailu independenteak jarrita (geltokiko pasabiderako beharrezkoak direnekiko osagarriak), hitzarmen honen I. eranskinean jasotako planoaren arabera.

XEDAPENAK

LEHENA. HITZARMENAREN XEDEA.-

Lankidetz hitzarmen honen xedea da Ordiziako Udalaren eta ADIFen arteko lankidetz antolatzea "Ordiziako udalerrian tren-geltokiko irisgarritasun-proiektua eta oinezkoentzako azpiko hiri-pasabidea" gauzatzeko Madril-Irun tren-bidean, aipatu proiektuko lanak kontratatzeko, gauzatzeko eta finantzatzeko baldintzak, eta orobat, lanen zuzendaritza fakultatiboaren, lanei dagozkien laguntza teknikoaren eta gauzatutako lanen ondorengo mantentze-lanen baldintzak ezarri; hori guztia nasen arteko irisgarritasuna errazte aldera, sarbideko kontrolak berrantolatuz. Halaber, xedea da herritarrei hiri-iragazkortasuna erraztea.

BIGARRENA. ALDEEN BETEBEHARRAK

Ordiziako Udalak ondorengo betebeharrak hartzen ditu bere gain hitzarmen honen bitartez:

- Azpiko pasabidea eraikitzeko, udalak bereak izan ditzakeen lurak ADIFen eskura uztea. Beharrezkoa balitza, eta proiektua gauzatze aldera, hirugarrenen lurak eskuratzea. Udalak bere burua behartzen du horiek lortzera edo, bestela, ADIFek beharrezkoak diren lurak desjabetzeagatik ordaindutako balio justua entitate publiko horri ordaintzera. Azpiko pasabidea egiteko lanengatik okupatutako lurak, baldin eta horiek ADIFen ondasunen inbentarioan sarturik ez badaude, edo trenbidearen barruan ez badaude, Ordiziako Udalaren titularitatekoak izango dira.
- Esku-hartzeen kostua ordaintzea hitzarmen honetako HIRUGARREN xedapenean jasotakoa batez.
- Obrak egiteko beharrezkoak izan daitezkeen baimen eta eskumen guztiak emango dizkio ADIFi; beronek ez ditu eskatu eta ordaindu beharko aipatu baimen eta eskumen horiei dagozkien tasak.
- Hiriko azpiko pasabideko ingurunea eta instalazioak hitzarmen honetako ZAZPIGARREN xedapenean zehaztutakoaren arabera mantentzea.
- Lanak egikaritzeko kontratuaren kudeaketa administratiboa kudeatu aurretik, Ordiziako Udalak behar besteko berme ekonomikoa emango dio ADIFi entitate horrek obrak kontratatu ahal izan ditzan, eta hori guztiak Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko 30/2007 Legeko 93.5 artikuluan ezarritakoa betez.

ADIFeko administratzaileak bere aldetik, ondorengo betebeharrak hartzen ditu bere gain:

- "Ordiziako udalerrian tren-geltokiko irisgarritasun-proiektua eta oinezkoentzako azpiko hiri-pasabidea gauzatzeko proiektua idaztea. Ordiziako Udalerria (Gipuzkoa). Linea: Madril-Irun."
- Lanak egiteko beharrezkoak diren haren titularitateko lurak aldi baterako jartzea, lanak burutzeko baino ez, eta lur horien gaineko titularitateari eutsiz.

- Ordiziako udalerrian tren-geltokiko irisgarritasun-proiekturako eta oinezkoentzako azpiko hiri-pasabiderako proiektua (eraikitze proiektuaren arabera) gauzatzeko lanak lizitazioa, kontratazioa eta egikaritzea egitea.
- Lanen zuzendaritza eta koordinazioa egitea, bere bitarteko propioez edo ADIFek kontratatutako bitartekoez.
- Esku-hartzeen kostua ordaintzea hitzarmen honetako HIRUGARREN xedapenean jasotakoa batez.
- Lanak egiteko beharrezkoak diren lizitazioak trenbideko zerbitzuari programatu eta instrumentatu, baita lan horiek egiteko beharrezkoak diren obra-pilotuak/arduradunak jartzea ere, dagozkion zehaztapen teknikoekin.

HIRUGARRENA. FINANTZAKETA

Alde bakoitzari dagokio esku-hartzea finantzatzea ondorengo baldintzen arabera:

- ADIFek bere gain hartuko du nasetarako irisgarritasunaren, azpiko pasabidearen, bi igogailu eta bi eskailera eraikitzearen eta horri loturiko instalazioen kostua, gehienez ere **3.695.000,00** euroko kostuarekin (BEZ gabe).
- Udalak bere gain hartuko du hiri-pasabideko igogailua eta eskailerak eraikitzearen kostu gehigarria, eraikitze proiektuaren arabera, gehienez ere **155.000,00** euroko kostuarekin (BEZ gabe).

ERAKUNDEA	GUZTIRA	2018	2019	2020
ADIF	3.695.000,00	225.000,00	2.000.000,00	1.470.000,00
Ordiziako Udala	155.000,00	----	100.000,00	55.000,00
GUZTIRAKOAK	3.850.000,00	225.000,00	2.100.000,00	1.525.000,00

LAUGARRENA. ORDAINTZEKO MODUA

Hitzarmen honetako lanak burutzeko, ADIFek hirugarrenekin kontraturen bat edo batzuk egiten baditu, ADIFek eta Udalak ordainduko dizkio(e)te aipatu kontratuen esleipena jaso du(t)en hirugarrenari/ei dagozki(o)en fakturak egindako lanengatik, aurreko xedapenean ezarritako ehunekoetan eta baldintzetan.

Ordaintzeko epea ADIFek sinatutako kontratuetan ezarritakoa izango da, eta fakturen bidaltze-datatik aurrera hasiko da kontatzen; fakturak ADIFeko kontratuaren zuzendariak sinatutako egiaztapenekin batera edo kontratua osorik edo parte batean bete dela erakusten duten dokumentuekin batera joango dira. Kasu horretan, ADIFek baldintza-agirietan eta kontratuetan espresuki jasoko du egiaztapen bakoitzari dagozkion fakturak Udalaren eta ADIFen izenean bidaliko ditu(zt)ela esleipendunak/ek, aurreko xedapenean erakunde bakoitzerako ezarritako ehunekoan eta finantziario-baldintzetan.

Edozein kasutan, ADIFek egingo dituen kontratuak lizitaziorako eta esleipenerako oinarri izan diren klausula administratibo partikularren agirietan jasoko diren xedapenei eta baldintzei lotuko zaizkie.

BOSGARRENA. JARRAIPEN BATZORDEA

Jarraipen-batzorde bat eratuko da, eta horretan Ordiziako Udalak eta ADIFek bina ordezkari izango dituzte; hortaz, lau kidek osatuko dute eta hauexek izango dira horiek egitekoak:

- Hitzarmen honetan jasotako esku-hartzeen koordinazioa eta jarraipena.
- Hitzarmena gauzatzeko ezarritako epeak beteko direla arduratu.
- Obrak egikaritzeko eta hitzarmeneko helburuak betetzeko beharrezkoak eta egokiak ikusten diren gainerako ekintzen koordinazioa sustatzea.
- Aldez aurretik, hitzarmen honetan jasotako baldintzei buruz sor daitekeen edozein interpretazio ebaztea.
- Lanak bukatuta, obraren onarpena egitea, trenbidearen barruan txertatzen diren lanak identifikatzea, eta horiek izendatzea.

Batzordekideak edo horiek eskuordetuko duten pertsona bi aldeetako edozeinek eskatuta batzartuko dira, eta hartu beharreko erabakiak hartuko dira aho batez. Batzordea, formalizatu ondoren, lanak burutzen ari diren bitartean noiznahi batzartuko da lanen martxa egokiak hala eskatzen badu. Halaber, lanak bukatutakoan batzartuko da obraren onarpena eta entregatzea egiteko.

Batzorde horretara joan ahal izango dira, aldeek hala adostuta, Ordiziako Udaleko teknikariak (barrukoak nahiz kanpokoak) eta ADIFeko teknikariak, horiek bertan egotea batzordeak bete beharreko eginkizunak betetzeko komenigarritzat jotzen bada.

Jarraipen-batzordeak azterlanen eta proiektuen alderdi teknikoan azterketa azpibatzerde tekniko bati eskuorde diezaioke, nahiz eta alderdi horiei buruzko azken erabakia jarraipen-batzordeak hartuko duen.

ADIFek izendatuko duen ordezkari bat izango da jarraipen-batzordearen burua.

SEIGARRENA. OBRAK ENTREGATZEA

Lanak guztiz bukatuta, eta proiektuaren arabera burutu direla egiaztatuta, alde bakoitzak izendatuko dituen ordezkariak obra-onarpenaren aktak sinatuko dituzte, eta ondorengo esleipenak egingo dira:

- Trenbide-instalazioak eta ADIFen lurretan dauden gainerako instalazioak entitate publiko horren esku geratuko dira.
- Aurreko esparru horren barruan sartzen ez diren lanak, instalazioak eta lurrak (alegia, ADIFen lurretan kokatzen ez direnak) Udalarenak izango dira.
- Azpiko pasabideak bokazio bikoitza dauka: bide publikoa eta trenbide-instalazioetara sartzekoa. ADIFen lurretan egongo den zatia (sestra-mailan edo lurpean) ADIFena izango da, trenbide-ustiapena bermatze aldera.

Lanak esleitzeko prozedura zuzenduko duen baldintza orokorren agirian berariaz jasoko da eraikuntzako enpresak edo enpresek erantzun beharko dietela obren berme-epearen barruan sor litezkeen akatsei, baita eraikitako gauzetan ezkutuan egon daitezkeen akatsei ere: horiez, Kode Zibileko 1.591. artikuluan

xedatutako baldintzetan, eta Eraikingintzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/99 Legean xedatutako baldintzetan erantzungo da.

ZAZPIGARRENA. MANTENTZE LANA

Obra-onarpenaren aktaren datatik aurrera, Udalak konpromisoa hartzen du azpiko hiri-pasabidea, horko ekipamenduak eta instalazioak (igogailua, argiteria, saneamendua, eta abar) garbitzeko, jagoteko, zaintzeko eta mantentzeko, eta ingurunea urbanizatzeko. Halaber, bere gain hartuko ditu instalazio guztiek behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren hornigai guztiak.

Udalak arestian aipatutako betebeharrak bere gain hartzen dituela instrumentatzeko, azpiko hiri-pasabidea martxan jartzen denetik kontaktzen hasita hilabeteko epean, gehienez, ADIFek bere titularitatekoa den eta aipatu azpiko pasabide horri dagokion lurra/lur-azpia erabiltzeko baimena emateko lagapen administratibo bat emango dio toki-erakunde horri 75 urterako, Herri Administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legean xedatutakoaren arabera. Ordiziako Udalak izango da, hortaz, azpiko pasabide horren esleipenduna, pasabidea bide publikoa izan dadin. Lagapen horrek kanonik ordaindu beharrik ez duela ulertzen da, eta dohainik emango da aipatu 33/2003 Legeko 95.4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

ZORTZIGARRENA. ZERGAK

Ordiziako Udalak, interes publikoko esku-hartzeak izanik, hitzarmen honen xede diren obrak, ekipamenduak eta instalazioak egiteko beharrezkoak diren lizentziak lehentasunez bideratzeko eta kostua bere gain hartzeko konpromisoa hartzen du.

Horrez gain, Udalaren kontura eta kargura izango dira obra horietatik sor daitezkeen zergak, tasak eta arielak.

BEDERATZIGARRENA. INDARREAN SARTZEA, IRAUNALDIA ETA HITZARMENA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 50.2 c) artikulua betez, hitzarmena sinatuko bada, aurrez Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren baina behar izango da.

Hitzarmen hau perfektionatuko da sinatzearekin batera, eta erabateko balioa eta eraginkortasuna hartuko ditu Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara ematen den, eta Estatuko sektore publikoko Lankidetzaren Organoen eta Tresnen Estatuko Erregistro Elektronikokoan inskribatzen den unetik beretik; hori guztia, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legeko 48.8. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lankidetzaren hitzarmen honek, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 49.h) artikuluko I. atalean xedatutakoaren arabera, lau urteko iraunaldia edukiko du, nahiz eta, hitzarmen honetan jasotzen diren esku-hartzeak burutzeko iraunaldi hori baino denbora gehiago behar izanez gero, aldeek iraunaldiaren luzapena bideratzeko konpromisoa hartzen dute iraunaldi hori bukatu baino behar besteko denborarekin, aipatu Legeko 49.h) artikuluko II. atalean aurreikusitakoa betez. Horretarako, baimena emateko jarraitutako prozedura berbera jarraituko da.

Hitzarmen hau, gainera, ondoren aipatzen diren arrazoi horietakoren baten ondorioz etengo da:

- Hitzarmenean jasotako esku-hartze guztiak bete edo bukatu direlako.
- Aldeek adostasunez hala erabakita; erabaki hori horretarako landutako dokumentuan jasoko da.
- Sinatzaileek hitzarmenean jasotako betebeharrak zehatzak larriki ez betetzeagatik, aurrez frogatzeko moduan idatzizko jakinarazpen bidez eta gutxienez hilabete lehenago jakinarazita kaltetuko duen aldeak. Ondorioetarako, egon daitezkeen kalte-ordainak zehazteko irizpide gisa ezartzen da alde kaltetuak ez-betetze hori gertatzen denean izan ditzakeen kostuak.

Aurreko ataletan jasotako arrazoiez bestelakoengatik iraungiz gero, iraungitzea proposatuko duen aldeak hitzarmena ez bukatzeko asmoaren berri eman beharko die gainerako aldeei idatziz. Halaber, erabaki hori zergatik hartu duen azaldu beharko du.

Hitzarmenaren xede diren esku-hartzeak bukatu direlako ez, baizik eta beste arrazoiren batengatik iraungitzen bada, koordinazio- eta jarraipen-batzordeak oraindik gauzatzeko bidean dauden hitzarmen honen ondoriozko esku-hartzeak bukatzeko baldintzak proposatuko ditu.

HAMARGARRENA. HITZARMENAREN IZAERA JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Hitzarmen honek izaera administratiboa dauka eta indarrean dagoen araudi administratiboaren baitan dago, eta horretan aurreikusten ez den guztian aplikagarria izango zaio Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legea.

Aldeek hitzarmen honen interpretazioan eta/edo betetzean sor daitezkeen gorabeherak jarraipen-batzordean ebatziko direla adostu dute.

Jarraipen-batzordearen erabakirik ezean, administrazioarekiko auziko jurisdikzio-ordenan ebatziko dira.

Eta aurreko guztia onartu eta guztiarekin adostasunean, hitzarmen honen bi ale sinatu dira hasieran adierazitako lekuan eta datan.

Eztabaida

Alkate jaunak hitzarmena sinatzearen helburua zein den azaldu du.

Adierazi du, halaber, zein den gauzatzeko aurrekontua eta zein gastu-konpromiso hartzen den planteatutako obren zati bat egikaritzeko. Gastu-konpromiso horrek berarekin dakar:

- 121.000 euro (BEZ barne) 2019. ekitaldirako.
- 66.550 euro (BEZ barne) 2020. ekitaldirako.

Aurrezki garbiaren eta 2019. eta 2020. ekitaldietan lor daitezkeen diru-laguntzen kargura finantzatzeko da.

Kontu-hartzaile jaunak argitu du gastu-konpromiso hori 2017ko aurrekontuan jaso behar dela.

Eguren jaunak esan du proposamenaren alde bozkatuko duela eremuko irisgarritasuna hobetzen duen lana delako, aspalditik datorren eskaria. Alabaina, zehaztu du hitzarmena sinatzeko ADIFekin dauden kontratuak ez direla legealdi honen hasierakoak, baizik eta gai horrekiko kontratuak lehendik datozela; zehazki aurreko legealdian bizpahiru bilera egin ziren ADIFekin.

Pozten da hitzarmena orain gauzatzeaz.

Dubreuil jaunak esan du proposamenaren alde bozkatuko duela eremuko irisgarritasuna hobetzen duelako, eta gainera, San Bartolome auzoarekiko lotura hobetzen duelako.

Bozketa

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat eman du.



7.-Ordizia-Goierriko Zirkuluaren proposamena Gipuzkoan aldiriko trenen zenbait zerbitzu kendu izanari buruzkoa.

Proposamena

2017ko urriaren 28an (larunbata), Gipuzkoan aldiriko trenen (RENFE) erabiltzaileek behin eta berriro salatzen ari diren gertaera baten lekukoak izan ginen.

Goizeko 8etan geltokira joan ginen, eta ikusi genuen 8:03an iristen zen trena bertan behera geratua zela jakinarazten aldiriko trenaren erabiltzaileei. Hamar bat lagun garraiobiderik gabe geratu ziren, eta gainera, hori nahikoa ez eta taxi-zerbitzua ere ez zegoen erabilgarri. Tren-zerbitzu publikoa erabiliz beren lanetara joateko asmoa zuten pertsona horiek, halabeharrez, berandu iritsi ziren lanera.

Iragan apiriletik, RENFEren aldiriko zerbitzua Gipuzkoan penagarri izaten ari da, eta bereziki kaltetzen ari da Goierri eskualdea (Brinkolatik Alegiara), izan ere Tolosatik Irunera lineako autobusak daude, nola edo hala RENFEren gabezia horiek bete ditzaketanak. Ez da hala gertatzen Goierri; ez dago halako autobus-zerbitzurik.

Badirudi zerbitzuan gertatzen den hutsune hori trenbideak AHTra egokitu behar izatearen ondorio dela. 2017ko Aste Santuan hasi ziren zerbitzu asko bertan behera geratzen, eta horren berri soilik RENFEren

web-orrian ematen zen; hortaz, erabiltzaile asko 'botata' geratu zen geltokietan trena hartzera joan zirenean.

Une horretan Lezo - Renteria/Pasaia Irun ibiltartea bertan behera geratu zen, Brinkolarainoko tarte osoa kaltetuz. Badirudi bertan behera geratuko dela bi urtez. Baina, zerbitzuak bertan behera geratzeaz gain, ez da horren berri ematen, ezta ordutegi-aldaketaren berri ere; ordutegien paper-formatua ere kendu egin dute.

Zerbitzuak ez dira modu konstantean kentzen; aldatuz joaten dira, gure iritziz, oharkabean pasa dadin. Nolanahi ere, badakigu, langileek hala esanda, egunean 4tik 7ra zerbitzu kentzen ari direla. Jakin dugu zein den arazoa: makinista gutxi dago. Horrela, ez dituzte zerbitzuak edo horiek bertan behera uztea antolatzen goizeko txanda sartzen den arte. Informazio hori leihatiletan lan egiten duten langileek eman digute. Plantilla azken hilabeteotan berritzen ari dira, bai azpikontrata bidez, baita minusballotasuna duten kolektiboen bidez ere. Ez ditugu horien lan-baldintzak ezagutzen, baina iruditzen zaigu prekarioak izango direla.

Hedabideek eta RENFEk berak diote bederatzi tren-gidari berri hartuko dituztela, itxura denez abenduan; gaur egun praktiketan ari dira. Kontratazio horiek trenak bertan behera gelditzea saihestuko luke, baina abenduan bost tren-gidari lekuz aldatuko dira, eta azaroan bik erretiroa hartu dute. Beste hedabide batek esan digu gaur egun plantillan dauden tren-gidariak gainezka egin dutela erabat alderdi guztietan: egin behar dituzten lanorduak, konpainiaren aginduak bete nahi ez izateagatik langileek jaso eta salatutako mehatxuak.

Plantillaren batez besteko adina 50 urtetik gorakoa da Tolosako, Beasaingo eta Zumarragako tren-geltokietan; zerbitzua kanpo kontrata pribatu batek ematen du (DELTA); langileek lan-baldintza prekarioak dituzte, zerikusirik ez operadore publikoetako langileek dituztenekin. Zerbitzuko gorabeherak areagotu egin dira, material zaharkituaren eta mantentze-lanik ez egitearen ondorioz. 2017/11/4an aldiriko tren bat errailetatik irten zen Urrietako tunelaren sarreran, luiziak eraginda (ez ze zauriturik egon). 2017/11/14an, Tolosatik Zumarragarako trena bertan behera geratu zen ASFak huts eginda (tren-gidariari jakinaraztea kabinan seinalea zegoela), eta itzuliko trena, Zumarragatik Lezo - Errenteriara zihoana ere bai, 21:15ekoa. Tolosako eta Ordiziako geralekuak hobetzea proiektatu dute, baina oraindik gauzatu gabe daude. Beasaingo geltokian lanak 2016an hasi ziren, eta igogailua oraindik zerbitzutik kanpo dago. Alegian oinezkoentzako trenbide-pasagune bat dago, ikuspegiarik gabea; segurtasunerako arriskua, ezbeharrak edo istripua eragin dezakeena.

Txartel-zulatzailleen plantilla murriztu egin da langileek erretiroa hartuta, eta ez da berritzen. Edozer gertatzen dela ere, bidaiariek ez dute informaziorik, ezta tratu pertsonalirik ere. Batzuetan, kexak eta haserreak tren-gidariak pairatu behar izaten ditu, bera baita RENFEko operadore bakarra, enpresak informaziorik edo eman ez duen zerbitzurako bestelako irtenbiderik ez ematearen errurik ez duena. Eta ez dago inolako frogarik erakusten duenik RENFEk edo ADIFk zerbitzuan negatiboki eragiten duten gabezia horiek konpontzeko inolako borondaterik dutenik.

Gipuzkoan egiten diren joan-etorrien % 98 aldirikoak dira.

ESKAERA

-Osoko bilkurak galdegin diezaiela Sustapen Ministerioari eta zuzenean RENFEri eta ADIFI pertsonen garraio-zerbitzu publikoaren kudeaketa hobetuko duten neurriak har ditzaten premiazotasunez, eta aldirikoetan kendutako zerbitzuak berrerauz ditzatela.

-Kalitateko zerbitzu publikoa, herritarren poltsikoetara egokitua, eskatzen da; hortaz, RENFE n Lurralde-bus edo MUGI txartela gehitu beharko lirarteke, deskontu berdinekin.

-Zerbitzu publiko horren kudeaketan aldaketa eskatzen da, pribatizazioak bertan behera uztea, herritarrek garraio pribatua (norberaren autoa) erabili ordez garraio publikoa erabil dezan.

-Langileen lan-baldintza egokiak izatea eskatzen dugu.

Eztabaida

Sukia andreak mozioa zergatik aurkeztu duten azaldu du.

Circulo Ordizia-Goierrik eskatu du aurkeztutako mozioan ageri diren eskakizunak onartuz gero, mozioa dagokion lekuan aurkeztea, eskualdeko beste herrietan onar daitezkeenekin batera.

Mozioa irakurri du.

Alkate jaunak esan du arazoaren berri edukita Renfeko aldirikoen arduradunekin harremanetan jarri direla lehen eskuko informazioa jasotzeko. Esan du, emandako informazioaren arabera, Fenfek 51 tren-gidari dituela plantillan, baina bajak eta erretiroak egon direla. Gainera, luze gabe, beste pertsona batzuek egingo dute tren-gidari izateko azterketa.

Dubreuil jaunak galdetu du ea mozio hau PODEMOSek Batzar Nagusietan aurkeztutako haren berdina ote den.

Sukia andreak baietz erantzun dio, eta horrez gain, errealitatea mozioan erakusten den hori dela gehitu du, ez alkateak erakutsi duena, nahiz eta PODEMOSekoei emandako informazioa ere ildo beretik zihoan.

Dubreuil jaunak eskatu du mozioa zehaztapen berdinekin bozkatzea; alegia, Batzar Nagusietan onartu ziren zuzenketa adostutakoekin.

Sukia andreak eskatu du mozioa bere horretan bozkatzea, bera ez baita inor Circulo Ordizia-Goierrik planteatutako eskaera aldatzeko, zirkulua baita mozioa proposatu duena.

Dubreuil jaunak esan du ez duela gaia sakondu, baina badakiela Batzar Nagusietan planteatutako mozioa, zuzenketa adostuak barne, onartuak dituela bere alderdiak. Gaia ez duela ondo ezagutzen esan du.

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat eman du.



8.-Toponimiari buruzko mozioa.

Proposamena

Toponimia (grezieratik topos, "leku" + nomos "izen") leku-izenak , toponimoak aztertzen dituen onomastikaren atala da. Toponimoen jatorriak, esanahiak, erabilerak eta motak aztertzen ditu. Geografia lekuak -hala nola herri, ibai edo mendiak - adierazteko, izendatzeko edo ezagutzeko erabiltzen den hitza edo hitzak dira toponimoak.

Toponimoak informazio garrantzitsua eskaintzen du lekuen historiaz, biztanleen antzinako hizkuntzaz, biztanleen banaketaz, lekuaren erlijioaz, jendearen bizimoduaz, e.a. New Yor-en, 2007ko abuztuan izandako Izen Geografikoen Normalkuntzari buruzko Nazio Batuetako Bederatzigarren Biltzarrean erabaki zen kultur-ondare ez-materialen tratamendua eman behar zitzaizela toponimoei .Gure herrietako toponimoak gure kultur-ondarearen parte dira eta babestu, eguneratu eta erabili egin behar ditugu .

Ordiziako toponimia bildu, sailkatu, kokatu eta arautzeko beka deialdia luzatu zuen Ordiziako Udalak 2007an. Euskaltzaindiako Onomastika Batzodeko idazkariaren, Mikel Gorrotxategi, tutoretzapean Ainitze Etxaniz Iraola eta Irati Zaldua Ortiz de Guzmanek burutu zuten lana eta Imanol Goikoetxea geografoak mapa egin zuen.

Ordiziak, urteetan zehar, izan duen hiri garapenaren bidez sortutako hainbat eremu berri sortu ditu, horietako bat Filipinak kalean sortutako etxebizitzak eta parkea ditugu. Bizkaia pasealekua eta Filipinak kalearen artean dagoen lursaila, 1956ko agiri baten arabera, " Postorenbilordi" izenarekin azaltzen da.

Bertan dagoen parkea, garai batean zegoen lurjabeen familiaren abizenarekin, "Oreja" izendatzeko ohitura zabaldu da herritarren artean. Ordiziako toponimiak eremu hori izendatzeko jasotzen duen leku-izena berreskuratu asmoz, OrdiziakoEH BILDUK ondorengoa proposatzen du:

ESKAERA

Horregatik guztiagatik, ERABAKI hauek hartzeko eskatzen diogu Ordiziako Udalari:

- -Lursail horrek herriko toponimian duen izena berreskuratzea.
- -Orain arte izenik gabe dagoen parkeari " BILORDI" (lore bidea) izena jartzea.
- -Parkean,ondo ikusteko moduan, izena jartzea .
- -Ordiziako mapak berritzen direnean izena kokatzea.

Eztabaida

Maiza andreak azaldu du toponimia altxorra dela herri guztietan, gure kultura-ondarearen zati bat. Esan du udalak toponimia berrikusteko prozesua jarri zuela martxan 2007an.

Lan horietarako aholkularitza Euskaltzaindiak eman zuen, eta emaitza Ordiziako toponimiari buruzko liburu bat izan zen.

Azaldu du, halaber, sortuz joan diren hirigintza-eremu berriei emandako izenak aipatu toponimia aintzat hartu gabe eman direla. Eremu horietan 'OREJA parkea' deritzan hori dago. Eremu horri BILORDI izena ematea proposatu du, halaxe ageri baita lekua aipatzeko 1956. urteko dokumentu batean.

Sukia andreak esan du asmoa oso ona iruditzen zaiola, eta lekuan bertan informazio-kartel bat jartzea proposatu du.

Bozketa

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat eman du.



9.-Euskararen eguneko adierazpena.

Proposamena


Abenduak 3, igandearekin, Euskararen Nazioarteko Eguna. Eusko Ikaskuntzak 1949. urtean Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3. egunarekin ospatzea erabaki zuen. Ia hirurogei urte igaro arren, oraindik orain, Euskal Herriko hizkuntza berreskuratzeko premia larriak bere horretan dirau.

Egia da, bistakoa baita, euskaltzale eta ekintzaile askoren ahaleginak ez direla alferrikakoak izan eta euskara orain dela 50 urte baino hobeto dagoela, askoz hobeto baina ez aski. Egia da, azken urteotan lortu dugu Euskal Herriko lurralde guztietan aurrera urrats esanguratsuak egitea. Egun, inoiz ez bezala euskaldunok berariazko erakundeak dauzkagula Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, alde batetik, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan, bestetik, eta Nafarroa Garaian, azkenik. Baina ez daukagu hizkuntza politika bateraturik.

Badakigu, nola ez, edozein hizkuntza gutxituren behineneko arazoa, transmisiotik harago, erabilera dela, hizkuntza biziberritzea berau erabiltzea dela, alegia. Baina euskararen erabilera, xedea bada ere, ez da areagotuko oinarrian ez badu hiztun-elkarte zabala, sendoa, trinkoa eta engaiatua.

Datorren urtea, 2018, urte berezia da. Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak 100 urte betetzen dituzte eta 1968ko Arantzazuko Bileratik hona 50 urte igaro dira. Euskara Batuaren 50. urteurrena, alegia. Legebiltzarrak berariazko garrantzia eman nahi dio hizkuntzaren estandarizazioari eta Euskara Batuak normalizazioari dakarkiona nabarmendu. Hezkuntzan eta unibertsitatean, literaturan eta, oro har, kulturean, hedabideetan eta gizarte zerbitzuetan lortu duguna ez zitekeen posible izan hizkuntza eredu estandarrik izan ez bagenu.

Batasuna. Hori da giltzarria: batasuna. Euskara Batua izan da, eta, euskaren normalizaziorako euskarri sendoenetakoa eta euskararen hiztun-elkartearen batasuna erabilera eraikitzeke orube egokiena. Sakondu eta zabaldu behar dugu batasun hori. Aspaldiko partez, hizkuntza politika Euskal Herriko erakunde publikoen eskumena da. Euskal Hirigune Elkargoarena, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan; Nafarroan Garaian Foru Gobernuarena eta Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan Jaurlaritzarena. Eskumenak baditugu, beraz, orain kudeatu eta, ahal dela, bateratu behar ditugu.



Batasunaren aldarria zabaldu nahi dugu Legebiltzarretik: Euskara Batua sendotzeko eta hedatzeko, doakotasuna euskara edonork ikas dezan, hizkuntza politika bateratua Euskal Herri osoan eta euskararen erabilera sustatzeko ekimenak.

Horregatik guztiarengatik, Ordiziako Udalak Euskararen Nazioarteko Egunari begira (abenduak 3) ondorengo adierazpena onartu eta zabaldu nahi du:

Euskararen hedapena eta erabilera eraginkorra lortzeko ezinbestekoa hizkuntza eredu estandar egokia, gizarteratua eta onartua izatea. 1968 urteko Arantzazuko Euskaltzaindiaren Bilkuran abiatutako Euskara Batuaren prozesua izan da, dudarik gabe, euskararen normalizazioa izan ahal izateko euskarririk sendoena eta, aldi berean, euskaldunen arteko batasunaren seinalerik argiena.

Horiek horrela, gure erakundeak adierazi nahi du bere atxikimendua euskaldunen arteko batasunari eta euskararen erabilera sustatzeko ekimenei. Era berean, datorren urtean euskararen erabilera areagotzeko parte hartzeko konpromisoa gure egiten dugu.

- - Adierazpena eta konpromisoa hartu izanaren berri udalen arteko erakundeei lehenbailehen jakinaraztea.
- - Euskararen erabilera sustatzeko zehaztutako ekimenen berri udalen arteko erakundeei jakinaraztea, erakunde horiek horren berri eman dezan.

Eztabaida:


Intxausti andreak euskaraz dagoen mozioa irakurri du azalpen-zatian dauden eskaera-puntuak zerrendatu ditu.

Bozketa

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0



Ondorioz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat eman du.



10.-Udalaren hizkuntza irizpideen betetze-mailaren inguruan Plenorako mozioa

Proposamena

Ordiziako Udalak Hizkuntza Irizpideen txostena onartuta dauka, baina onartuta izateak ez du esan nahi txostenean jasotako konpromisoak modu progresibo eta orekatuan betetzen ari direnik. Onartutako irizpideak aurrera eramateko borondate politikoa behar da. ENBA bilera egiten den bakoitzean (ikus 2017-06-21 akta) azaltzen diren arazoetatik, ezbairik gabe, ondorioztatu dezakegu hartutako konpromisoen inplementazioa eta betetze maila eskasa.

Nabaria da langileen lan sorkuntzan, euskara teknikariak itzulpengintzan duen lan karga ikusita, zer gertatzen ari den. Aurrera egin beharrean atzera goazela esan daiteke. O.U.H.I 4. PUNTUAN Itzulpen Politikari buruz esaten dena eta egiten dena oso urruti daude. Gizarteak euskara ezagutzan eta erabileran aurrera egiten duen eran, bitxia bada ere, Udalean atzera goaz.

RPTko hizkuntza eskakizunetan betetzeke (Idazkaria, Kontuhartzailea, Arkitektoa, Ongizateko koordinatzaile postua) dauden profilak noizko beteko dira? Denbora aurrera doa eta betetze mailako egutegia egin gabe.


- U.H. len txostenak jasotzen dituen konpromiso eta betekizunak irakurrita, arestian aipatutako gaiez gain, beste gai mordo bat ere zerrendatu daitezke. Etxeko lan ugari esku artean.

Egoera hau berbideratzeko asmoz eta euskarak behar duen babesa eta bultzada izan dezan Ordiziako EH Bilduk honakoa proposatzen du.

ESKAERA

Horregatik guztiagatik, ERABAKI hauek hartzeko eskatzen diogu Ordiziako Udalari:

1. Egutegi bat egitea lanpostu jakin batzuei dagokien euskara profila bete gabe duten langileek, ahalik eta



azkarren, profila lor dezaten. Aldi berean prozedura planifikatu eta jarraipena egitea.

2.Lanpostuari dagokion profila duten langileei,euskaraz ekoiztu dezaten, aholkularitza sistematikoa ematea eta horretarako euskara teknikariarekin batera egutegi bat egitea eta betetzea.

3.Euskara teknikariaren funtzioak berrirakurri eta ahalik eta modu orekatuenean betetzeko modua bilatzea, planifikazio on baten bidez.

4.-2017a bukatu aurretik, hots, abenduaren 31rako, aurreko puntuetan eskatzen dena planifikatuta eduki eta 2018ko urtariletik aurrera indarrean jartzea.

Eztabaida:

Maiza andreak mozioaren xedea azaldu du.

Esan du azken urteetan euskararen erabileran eta normalizazioan aurrera egin dugula baina Udaleko Lanpostu Zerrendan oraindik lanpostu askotan derrigorrezko hizkuntza eskakizuna esleitua izanik, lanpostua betetzen duten langileek ez dute dagokien hizkuntz eskakizuna egiaztatu.

Behin baino gehiagotan aztertu da gaia eta beti erakusten da borondate ona baina ez dago emaitzik. Hori dela eta planifikazio bat egitea beharrezkoa da.

Bi eskaera egin ditu:


- 1) Egutegi bat finkatzea, hizkuntza eskakizuna betetzen ez duten lanpostuetan eskakizuna lortzeko epe bat ezarriz.
- 2) Hizkuntza eskakizuna finkatuta duten eta lana euskaraz egiten duten langileei aholkularitza sistematikoa eskaintzea eta horretarako egutegi bat finkatzea Euskara Teknikariarekin.

Alkate jaunak uste du gaia aztertu behar dela planifikazio hori egiteko.

Kontu-hartzaileak esan du bera beti dagoela euskara hobetzeko prest, eta hori esan du mozioaren testuan besteak beste bere lanpostua aipatzen delako. Bere sailean batez ere euskaraz lan egiten dutela adierazi du.

Maiza andreak esan du Euskara Teknikariaren datuen arabera ez direla hartutako konpromisoak betetzen ari eta gainera itzultzeko geroz eta lan gehiago duela. Esan du ez duela ezer asmatzen, eta jasotako datuei heldu die.

Bere ustez teknikarien betebeharra da euskaraz lan egiten laguntzea.



Ordiziako Udala

2017IOSB0010

Alkate jaunak horrekin bat egiten duela esan du baino balorazio sakon bat egin behar dela.

Bozketa

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat eman du.



11.-Azoka eta jaialdi kudeatzaile lanposturako DBO ordainketa


Proposamena

Lanpostuen Zerrendan “azoken eta jaialdien kudeatzaile” lanpostua aldi baterako langile gisa azaltzen da, hau da, ezohiko aholkularitza funtzioak burutzeko iraunkorra ez den izendapena da eta horretara bideratutako aurrekontu-kredituekin ordaintzen da.

Lanpostuak dituen zeregin eta funtzioak betetzeko lanean aritzeko erabat prest egon behar du ordutegi malgua izanik eta presazko edo zerbitzuaren beharrek hala eskatuz gero, edozein unetan bere lana betetzeko betebeharra dauka.

Kontuan izanik dedikazio hori ezin dela guztiz ordaindu aparteko orduen ordainketarekin, lanpostuari Ezohiko Dedikazioari dagokion Osagarri Berezia ematea beharrezkoa da, erabateko disponibilitateak dakarren erabateko disponibilitate moduan.

ORDIZIAHITzen 69. artikulua arabera, ezohiko dedikazioaren osagarri bereziaren modalitatean, erabateko disponibilitateak berarekin dakar *Lanpostu baten titularrak bere lanpostuari dagozkion funtzioak egiteko disponibilitate osoa izan behar du bere lanalditik kanpoko orduetan, ordutegi malguarekin; zerbitzuaren premiagatik edo larrialdi egoera baten bere zerbitzuak eskatzen direnean, disponibilitate osoa modalitateko lanpostu baten titularrak lanlekura joan beharko du, eta horren barruan joan-etorriak sartzen dira eta eremu publikoan zein pribatuan ezin izango du irabaziko jarduerarik egin.*



Ordiziako Udala

2017IOSB0010

Erabateko disponibilitatea duten lanpostuek gehienez bere ordainsariaren %20a jasoko dute kontzeptu honengatik.

2017ko azaroaren 22ko Osoko Bilkurako Gaien Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROPOSAMENA

- 1.- Azoken eta jaialdien kudeatzaile lanpostuari ezohiko dedikazioagatik erabateko disponibilitate modalitatean osagarri berezia ematea, eta kontzeptu honengatik bere ordainsariaren ehuneko 20a ematea.
- 2.- Zenbateko horren ordainketa 2017ko uztailaren 1etik aurrera sartuko da indarrean.
- 3.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea akordio hau.

Eztabaida:

Alkate jaunak ehuneko 20a duen osagarri berezia zergatik ipintzen zaion azaldu du.

Akordioa Langile Batzordearekin adostu dela azaldu du.

Bozketa

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0


Abstentzia: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat eman du.



12.-Galde-erreguak

- Langileen batzordeko kide Jose Mari Intsausti jaunak esan du atzo ORDIZIAHITZen jarraipenerako batzorde parekidearen bilera egin zela, % 2,75eko soldata-igoera aztertzeko, langile publikoek galdutako erosahalmena berreskuratze aldera.



Datorren abenduaren 15erako beste batzorde parekide bat deitzea proposatu du.

Azken urteotan, galdutako erosahalmena % 8,6 izan da, eta % 4 baino ez da berreskuratu.

Oraindik badago zer berreskuratu.

Alderdi politikoak neurriarekin ados daudela esan du, hala dirudi behintzat, eta hori nola gauzatu adostu behar dela.

Alkate jaunak erantzun dio ez duela eragozpenik jartzen batzorde parekidearen bilera egiteko, baina aztertu beharra dagoela nola egin legearen barruan egiteko.

Kontu-hartzaileak esan du Estatuko Aurrekontu Orokorretan legez baimendutakotik gorako igoera erabat deuseza izango zela, zuzenbidearen arabera ez izateagatik.

- Ezenarro jaunak aipatu du pasa den urriaren 19an ASKAPENAK udalari bideratutako mozioa aurkeztu zuela, zein organotara zihoan zehaztu gabe, baina mozioa osoko bilkuran eztabaidatzekoa zela.

Mozioa irakurri du.

Alkate jaunak erantzun dio idazkia aurkituko duela, eta Udal Gobernu Batzordeko gai-zerrendan sartuko duela.


- Maiza andreak mugikortasuneko gai bati buruzko argibideak eskatu ditu.

Alkateak erantzun dio.

- Maiza andreak esan du osoko bilkurak Mexikora diru-laguntza bidaltzea erabaki zuela, lurrikarak kaltetutakoei laguntzeko. Halaber, laguntza horren zati bat Puerto Ricora bidal zitekeela erabaki zen, zikloi batek kaltetutakoak laguntzeko. Dubreuil jaunari galdetu dio ea erabaki hori gauzatu den.

Dubreuil jaunak erantzun dio laguntza hori Gurutze Gorriaren bidez helarazteko modua bilatzen ari garela.

- Osoko bilkuran publikoan daudenen artetik, 2018ko aurrekontuaren lanketa nola doan galdetu du pertsona batek.



Ordiziako Udala


2017IOSB0010

Alkateak erantzun dio.

Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak hori egiaztatzen dut.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.



Ordiziako Udala

2017IOSB0010

En Ordizia, siendo el día **30 de noviembre de 2017** se reúne en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el AYUNTAMIENTO PLENO EN sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:

ASISTENTES:

PRESIDENTE:

Dn. José Miguel Santamaría Ezeiza

CONCEJALES PRESENTES:

Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako E.H. Bildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako E.H. Bildu
Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako E.H. Bildu
Izaro Intsausti Zinkunegi.	Ordiziako E.H. Bildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako E.H. Bildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M. Jesús Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos

CONCEJALES AUSENTES:

SECRETARIA:

Dña. Ana Urkizu Kerejeta


INTERVENTOR:

Dn. Mikel Zubizarreta Elicegui

INTERPRETE:

Dña. Izaskun Zubitur Iñarra.

OTROS ASISTENTES:



Ordiziako Udala

2017IOSB0010

OTRAS INCORPORACIONES Y AUSENCIAS

ORDEN DEL DÍA

ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:

1. Aprobación del Acta del Pleno celebrada el 26 de octubre de 2017.
2. Dación de cuenta de los decretos de alcaldía del mes de octubre.
3. Reparos del Interventor de los meses de octubre y noviembre sobre contratación
4. Declaración Institucional del 25 de noviembre.
5. Aprobación Provisional de la Modificación puntual de NNSS del AIU "Garbigune".
6. Aprobación del Convenio Ayuntamiento ADIF para la ejecución de las obras de accesibilidad de la estación y nuevo paso de ciudad.
7. Propuesta del Círculo de Ordizia-Goierri ante la supresión de varios servicios de cercanías en Gipuzkoa.
8. Moción sobre la Toponimia.
9. Declaración del día del Euskera.
10. Moción sobre el grado de cumplimiento de los criterios lingüísticos del Ayuntamiento.
11. Asignación del C.D.E del puesto de gestor de ferias y festejos.
12. Ruegos y preguntas

ASUNTOS TRATADOS POR ORDEN DE URGENCIA:

ASUNTOS TRATADOS EN RUEGOS Y PREGUNTAS:


INCIDENCIAS

HORARIO

HORA INICIO: 19:00 horas.

HORA FINAL: 20:25 horas.





Abierta la sesión por parte del Presidente, se da lectura al primer punto del orden del día.

1.- Aprobación del acta de la sesión ordinaria de fecha 26 de octubre de 2017

Propuesta

Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 26 de octubre de 2017

Mayoría necesaria para la adopción de la propuesta: Simple.

Votación

Realizada la votación ofrece ésta los siguientes resultados:

Votos a favor: 13 (EAJ 5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Votos en contra: 0

Abstención: 0

Declara en consecuencia el Sr. Alcalde aprobada el acta por unanimidad.



A continuación por parte del Sr. Alcalde se da cuenta del segundo punto.

2.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía del mes de octubre.

Debate


Sr. Alcalde dice que en el pleno anterior la Sra. Sukia solicitó información sobre un decreto de la relación de decretos al que el Alcalde no pudo contestar de inmediato. Quedó en facilitarle la información.

Le informa de que dicho decreto es la devolución del aval a K6 Gestión Cultural.

Sr. Dubreuil pregunta sobre el decreto nº 17/0839, baja en el padrón.

Sra. Maiza pregunta sobre el decreto nº 17/0829, Clásica Marino Lejarreta.

El Alcalde les informa.



Ordiziako Udala

2017IOSB0010

El Pleno queda informado de la relación de decretos.



A continuación por parte del Sr. Alcalde se da cuenta del segundo punto.


3.- Reparos del Interventor de los meses de octubre y noviembre sobre contratación

Propuesta

INFORME DE REPAROS (8/2017) DEL INTERVENTOR:

ANTECEDENTES:

El Departamento de Secretaría da cuenta de los siguientes contratos que están fuera de plazo al Interventor:




NOMBRE DE LA PERSONA FISICA;	OBJETO DEL CONTRATO	CONTRATO	PLAZO DE EJECUCION VENCIMIENTO	PRORROGAS	PRECIO DE CONTRATO	GASTADO 2016
GESMUNPAL	Recaudación Ejecutiva	3.11.2003	3.11.2007	Decreto adjudicación de fecha 31/10/2007 Sin contrato y sin plazo	VARIABLE	30.943,58
JUAN M. GARMENDIA AMUNDARAIN	Servicio de conserje de la Casa cultura	15/04/1986	Indefinido	Prorroga anual	Importe 2016: 2.948,84 euros/mensual + IVA	42.817,20
LANDARRI, S.L.	Servicio Cementerio	10/03/2005	10 años 10./03/2015	Decreto prorrogas de contrato hasta nueva adjudicación Vto. 12.03.2016	Precio máximo 18.000 euros. + IVA	21.937,30
ALOTZA GUARDERIA	Gestión Serv. Municipal	01/09/2009	Máximo 6 años.		Ver contrato	388.104,00
Asociación de Padres	Escuela Infantil		01/09/2015		Tarifas + subv. + contraprestación ayuntamiento de 33.500	
GOXARA, S.L.	Gestión Centro de Día	10/11/2009	Máximo 6 años adicionales al plazo de vigencia inicial 10/11/2016		Según tarifas	271.916,44
EULEN SOCIOSANITARIOS	Servicio de Ayuda Domiciliaria	24.12.2010	Máximo 5 años 24/12/2015	Decreto 1169 de 30/11/2015 prorrogado hasta nueva adjudicación del contrato	Según tarifas	140.409,78
LORRATZ ELKARTEA	Servicio público de intervención socio-educativa en medio abierto con jóvenes y menores en situación de riesgo	27/04/2012	Máximo 4 años	Decreto de prorrogas hasta nueva adjudicación, máximo un año	Precio contrato: 60.000 euros IVA incluido.	63.806,72
Arantxa Zabaleta Imaz			27/04/2016		Precio 2016: 65.529 euros IVA incluido	
ERRO Koop. ELKARTEA	Gestión del Centro D'elikatuz	24/07/2012	Máximo 4 años 24/07/2016		Precio contrato: 90.000 euros IVA incluido	102.755,36
Leire Arandia					Precio 2016: 12.196,80 euros IVA incluido	11.243,96
INDOK	Gestión MUNIGEX	Sin contrato	Anual		Precio contrato: 17.061 euros IVA incluido	24.407,28
LAIA S.COOP.	Agenda 21	01/04/2013	01/04/2015	Sin contrato		163.343,53
EULEN	Limpieza edificios municipales y mobiliario urbano.	Contratación provisional 10/10/2013	Indefinido (hasta nueva contratación)	----	18,07 euro / hora + IVA	
AINARA ORMAETXEA HARTO	Servicio de Inmigración	01/01/2016	31/12/2016		21.773,95 euros IVA incluido	21.966,02
					TOTAL	1.283.651,17

A) Normas aplicables:

a.1) Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

Artículo "23. Plazo de duración de los contratos.



3. Sin perjuicio de las normas especiales aplicables a determinados contratos, la duración de los contratos del sector público deberá establecerse teniendo en cuenta la naturaleza de las prestaciones, las características de su financiación y la necesidad de someter periódicamente a concurrencia la realización de las mismas.

